



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN LEHEN MAILAKO SAREKO KONTAGAILU-ZERBITZURAKO KONTAGAILU, KONTROL-EKIPO ETA MATERIALAK HORNITZEA

3. DOKUMENTUA

PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren lehen mailako hornidura-sareko kontagailu-zerbitzurako kontagailu, kontrol-ekipo eta materialak hornitzea.

2. DESKRIBAPEN OROKORRA

BBUPen lehen mailako sareko kontagailu-zerbitzuak, bere jarduerak egiteko, zenbait ekipo eta ordezkoko pieza behar ditu.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren lehen mailako sareko kontagailu-zerbitzurako kontagailu, kontrol-ekipo eta materialen hornidura kontratatzea gomendagarria era horretako hornidurak ahalik eta baldintza tekniko eta ekonomiko onenetan eskuratzeko.

3. IRISMENA

Kontratu honen irismena izango da BBUPen lehen mailako sareko kontagailu-zerbitzuak bere jarduerak normaltasunez egiteko behar dituen ekipo eta material guztiak garaiz eta behar bezala hornitzea. Honako hauek dira ekipo eta materialak, bada:

- Lehen mailako hornidura-sareko fakturazioko eta kontroleko kontagailuak eta emari-neurgailuak ordezteak, hauek gertatzen direnean: matxura, funtzionamendu txarra edo zaharkitzea, bizitza baliagarria amaitu zaielako.
- Kontagailu eta emari-neurgailuetan osagai mekanikoak eta/edo elektronikoak konpontzea eta/edo aldatzea.
- Fakturazio- edo kontrol-kontagailu berriak instalatzea eta abiaraztea.
- Bolumenak eta emariak hartzeko, erregistratzeko, kontrolatzeko eta komunikatzeko ekipoak (datalogger motakoak), lehen mailako hornidura-sareko kontagailu-parkeari lotutakoak, programatzea eta instalatzea.
- Bateriak eta material suntsikorrak ordezteak mota guztietako ekipoetan.
- Kontagailuak eta emari-neurgailuak instalatzeko eta abiarazteko laguntza teknikoa, hala eskatzen den kasuetan soilik, bai eta kontagailuak egiaztatzea eta ziurtatzea ere.

3.1. Hornitu beharreko produktu

Hornitu beharreko produktuak zenbait familiatan banatzen dira, eta haietako bakoitzaren barruan zenbait marka daude, erabilera arruntekoak eta prestigio aitortutakoak, bai eta dauden elementuen osagai izanik BBUPen historikoki erabili izan direnak ere. Gainera, «bestelako markak» marka ere jasoko da, merkatuan dauden marka guztiak barne hartzeko.

Hornitu beharreko kopuruak ez daude aldez aurretik zehaztuta, baina zenbatespen bat dago; halere, zenbatespenak ez du BBUP lotzen, jardueren garapenak erabakiko baitu. Produktuak beharren arabera eskatuko dira; hala bada, BBUPEk ez du konpromisorik hartzen hornitu beharreko markari eta kopuruari dagokienez.

Horrez gain, eta eskatzen den kasuetan soilik, BBUPEk laguntza teknikoko zerbitzu bat eskatu ahal izango du. Zerbitzu hori langile tekniko kualifikatuak eman beharko dute, eta zerbitzu ofizial batek egiaztatuko.

3.1.1. Kontagailuak eta ordezkoko piezak hornitzea

FAMILIA	KOD.	MARKA
WOLTMAN MOTAKO KONTAGAILU MEKANIKOA	CM-01	ELSTER - IBERCONTA
	CM-02	BESTELAKO MARKAK
EMARI-NEURGAILU ELEKTROMAGNETIKOAK	CE-01	SIEMENS
	CE-02	KROHNE
	CE-03	BESTELAKO MARKAK
EMARI-NEURGAILU ULTRASONIKOAK	CU-01	ARAD - Contazara
	CU-02	SIEMENS
	CU-03	KROHNE
	CU-04	BESTELAKO MARKAK
DATALOGGER	DL-01	MICROCOM
	DL-02	SOFREL
	DL-03	BESTELAKO MARKAK
BATERIAK ETA MATERIAL SUNTSIKORRA	BF-01	SIEMENS
	BF-02	KROHNE
	BF-03	MICROCOM

	BF-04	SOFREL
	BF-05	BESTELAKO MARKAK
ASKOTARIKO ORDEZKO PIEZAK	RV-01	ELSTER - IBERCONTA
	RV-02	SIEMENS
	RV-03	KROHNE
	RV-04	ARAD - Contazara
	RV-05	MICROCOM
	RV-06	SOFREL
	RV-07	NIVUS
	RV-08	BESTELAKO MARKAK
OSAGARRIAK	AC-01	ELSTER - IBERCONTA
	AC-02	SIEMENS
	AC-03	KROHNE
	AC-04	ARAD - Contazara
	AC-05	MICROCOM
	AC-06	SOFREL
	AC-07	BESTELAKO MARKAK
LAGUNTZA TEKNIKOA (orduak)	AT-01	SIEMENS
	AT-02	KROHNE
	AT-03	BESTE BATZUK

3.2. Garraioa

Hornidura-kontratuaren prezioetan sartuta daude materiala adostutako entrega-puntura (INCOTERMS 2010 arauaren arabera DDPa) garraiatzearekin lotutako kontzeptuengatikoko gastu guztiak.

3.3. Dokumentazioa

Hornitutako produktuak dokumentu hauekin batera aurkeztuko dira:

- Kalitate-ziurtagiriak (erabilitako materialak, saiakuntzak, CE marka eta abar)
- Planoak
- Muntatzeko jarraibideak
- Mantentze-lanen eskuliburua



Dokumentazioa formatu digitalean entregatuko da; planoak Autocad (dwg) formatuan egongo dira, eta dokumentazio idatzia, Office-Word, PDF formatuan, irakurtzeko, inprimatzeko edo idazteko inolako murrizketarik gabe. Gainera, bi (2) kopia inprimatu emango dira.

4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Kontratistaren antolamendu-egiturak behar beste baliabide izango ditu kontratua behar bezala kudeatzeko (giza baliabideak eta baliabide materialak), eta BBUPi lanak egiaztatzen eta emaitzak kontrolatzen laguntzeko.

5. KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK

Kontratua agiri honetan adierazitako baldintzak betez egingo da, kontratistaren erantzukizunpean.

Kontratistak kontratuaren xede diren jarduera guztietan aplikatu beharreko legeria, erregelamenduak eta legezko araudia bete beharko ditu, baita BBUPek ezarritako prozedurak ere.

Jarduteko moduari buruzko edozein zalantza izanez gero, kontratistak kontratu-zuzendaritzara joko du, informazioa biltzeko.

5.1. Kontratuaren hasiera eta amaiera

Erabat debekatuta dago BBUPeko instalazioetan inolako jarduerarik hastea Kontratuaren Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.

Kontratuaren indarraldia igarotakoan amaituko da kontratua.

5.2. Prozedurak

Eskaera

Hornidura-agindua posta elektronikoz igorriko da eta hornidurako lan-aginduen aplikazio korporatiboen bitartez izapidetuko da. Aplikazioa Interneten egongo da. Aurretik, VPN web-sarbidea emango zaio hornitzaile adjudikaziodunari.

Entregak

Produktuak kontratuaren indarraldian emango dira, eskatu ahala.

Entrega bakoitzean, emate-agiri bat erantsiko da, eta, bertan, honako hauek zehaztuko dira: hornitutako produktuak, haien kopuruak, entregaren ardura hartzen duenaren izen-abizenak, etab.

Entregatzeko epea

Produktu guztiak entregatzeko gehieneko epea produktuen arabera izango da:

- DN200eko edo txikiagoko diametroa duten kontagailuei dagokienez, entregatzeko gehieneko epea lau astekoa izango da, materiala eskatzen denetik aurrera.
- DN200etik gorako diametroa duten kontagailuei dagokienez, entregatzeko gehieneko epea sei astekoa izango da, materiala eskatzen denetik aurrera.
- Datalogger-en kasuan, entregatzeko gehieneko epea bi astekoa izango da.
- Ordezko piezak eta osagarriak: entregatzeko gehieneko epea bi astekoa izango da (pilak izan ezik; pilen kasuan, lau astekoa izango da).

Hornitu beharreko produkturen bat entregatzeko epe handiagoa badu, adjudikaziodunak horren berri eman beharko du proposamenean.

Adjudikaziodunak arestian aipatutako epeak ezin dituela bete adierazten dituen produktuak (familia), guztira, sortako guztien % 10 baino gutxiago izan beharko dira, baldintza-agiriko familia bakoitzeko haztaperen-ehunekoaren banaketaren arabera.

Entrega atzeratzeak zigorra ekarriko du. Aurreikusitako entrega-epea igaroz gero, % 10eko zigorra aplikatuko zaio eskaintako prezioari. Atzerapen gehigarriko aste bakoitzak % 10eko zigor gehigarria ekarriko du ekipoen ordainketan.

Entrega-puntua

Kontratistak Beteluriko EUTko biltegian (Arrigorriaga) entregatu beharko ditu produktuak edo, bestela, zehazten den beste edozein tokitan, betiere Bizkaian. Horrek ez du ekarriko, nolana ere, eskaintakoekiko kostu gehigarriak.

Emateko tokia adjudikaziodunari jakinaraziko zaio eskaerak egiteko unean.

Harrera

Produktu guztien harrera administratiboa egingo da BBUPen kontagailuen biltegira iristean.

Eskatutako espezifikazioak betetzen ez dituzten produktuak itzuli egingo dira. Adjudikaziodunak bere ardurapean erretiratu beharko ditu, inolako ordainik jaso gabe.

5.3. Kontratuaren jarraipena eta kontrola

Kontratu-zuzendaritza kontratu-arduradun baten esku egongo da (BBUPeko plantillako ingeniaria). Arduradun horrek teknikari arduradun baten (BBUPeko langilea) eta/edo zerbitzu-arduradun laguntza izango du. Langile hori arduratuko da kontratua betetzeko zuzendaritza-, jarraipen- eta kontrol-lanez.



Kontratuaren Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen kontrol-neurriak ezarri ahal izango ditu kontratuaren baldintzak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko, eta egindako horniduren maila teknikoa egiaztatzeko egokitzen jotzen dituen ausazko ikuskapen guztiak egingo ditu.

Hilero, egindako entregei dagozkion emate-agirien ZERREDA ZENBATETSI bat egingo du kontratista adjudikaziodunak, eta zerrenda hori izango da geroago ziurtagiri bat egiteko oinarria.

5.4. Kalitatea ziurtatzea

Lizitatzailerak bere erakundeak kontratuaren baldintzak betetzeko gaitasuna duela ziurtatuko du.

Gaitasun hori ISO 9001 2008 ziurtagiriarekin edo goragoko beste batekin bermatuko da.

Ziurtagiririk izan ezean, BBUPEk egokitzen jotzen dituen kontrolak onartuko ditu lizitatzailerak, eta haien kostua bere gain hartuko du.

BBUPEk EHUren Ur Kontagailuak Probatzeko eta Egiaztatzeko Laborategi bat du (LVEC), Metrologia Egiaztapenerako Organismo Baimendu gisa izendatua. Laborategi horrek entregatutako produktuak ziurtatu ahal izango ditu. Tresnak ez baditu saiakuntzak gainditzen, ekipoa itzuli egingo da, eta lizitatzailerak bere gain hartuko ditu hala saiakuntzaren kostuak nola garraio-gastuak.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

5.5. Ziurtagiriak

Hilero emango da egindako horniduren ziurtagiria, aurkeztutako materialei dagozkien albaranen ZERREDA BALORATUAN oinarrituta.

Ziurtagiri partzialak behin-behinekoak baino ez dira izango, eta ez dakarte haien barruan jasotako produktuak onartzea.

6. KONTRATUAREN BERARIAZKO BALDINTZAK

Ez dago.

Beteluri, 2025eko maiatza



Kontratuaren arduraduna